EBAZPENA, 2026KO URRIAREN 5EKOA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAREN LEHENDAKARIARENA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO LETRADU INSTRUKTORE-IKUSKATZAILE LANPOSTU BI BETETZEKO DEIALDIAREN BALORAZIO-BATZORDEAREN OSAERA PUBLIKO EGITEKOA.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariaren 2026ko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez, letradu instruktore-ikuskatzaile lanpostu bi betetzeko deialdia onartu zen.

Seigarren oinarrian, balorazio-batzordea arautzen da. Hain zuzen ere, batzorde hori deialdia egiten duen agintaritzak izendatu behar du, deialdia argitaratu ondoren, eta, ezinbestean, merezimenduak baloratzen hasi aurretik, baita deitutako lanpostuak esleitzeko proposamena egin aurretik ere.

Deialdiaren seigarren oinarrian ezartzen den balorazio-batzordearen osaera gaur egun entitatearen plantilla osatzen duten langileen kopuru errealaren arabera ezarri behar da, kontuan hartuta bereziki Idazkaritza Nagusiko eta Aholkularitza Juridikoko unitateen arduradunak ez daudela denbora mugagabean. Horrez gain, bermatu behar da batzordea eratzen den unean eta merezimenduak ebaluatzen hasi aurretik jardunean dauden langileen eskuragarritasun errealaren arabera izendatzen direla kideak.

Aurreko hori kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako letradu instruktore-ikuskatzaile lanpostu bi betetzeko balorazio-batzordearen osaera eguneratua publiko egitea. Balorazio-batzordeko kideak izango dira honako hauek:

- Batzordeburua: Roberto González del Hierro González edo haren ordezkoa. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Aholkularitza Juridikoko Unitatearen titularraren ordezkari gisa.
- Batzordekidea: Juana María Vegas Fernández edo haren ordezkoa. Batzordekide den Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Aholkularitza Juridikoko letradu instruktore-ikuskatzailearen ordezkari gisa.
- Idazkaria: Aitor Iriarte Goikoetxea edo haren ordezkoa. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Idazkaritza Nagusiaren titularraren ordezkari gisa.

Bigarrena: Balorazio-batzordeak adituak izendatzeko eska diezaioke deialdia egin duen agintaritzari, aholkulari modura, hitzarekin baina botorik gabe, jardun dezaten.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

**LEHENDAKARIA**
**Unai Aberasturi Gorriño.**

UNAI ABERASTURI GORRIÑO - 78893858V
Firmado digitalmente por UNAI ABERASTURI GORRIÑO - 78893858V
Fecha: 2026.10.08 12:58:38 +02'00'